

HARREMANA BEZEROEKIN

Bezeroekin harremanetan jartzeko, kalean zehar propaganda egingo dugu foiletoak banatuz bai etxez etxe eta baita kartelen bat egingez. Interneten edo egunkarian iragarkiak jartzea ere ez litzateke idea txarra izango baina hori beranduago izango zen. Bi modu hauetara denda pertsona askok ezagutzea lortuko genuke, horren ondorioz, lokalean kontsumitzera bultzatzeko, beherapen batzuk egingo genituzke: Adibidez, asteko egun bat aukeratu eta prezioak jaitsi egingo genituzke egun horietarako bakarrik (Telepizzak edo 100 Montaditos-ek egiten duten bezala) esate baterako, astelehena aukeratuko genuke astea ondo hasteko eta egun horretan prezioak erdira gegtxiko genituzke.

Gainera, menuak sortzea ere prezioak jaisteko modu egoki bat izango litzateke (zeharkako modua deitu daiteke). Adibidez, zereal katilukada bat kafesnearekin (menuan), zereal katilukada bat eta kafesne bat separatuta erostea baino merkeago jartzea izango zen guk egingo genukeen oferta moduko bat.

Bezeroekin harremana zuzena izango litzateke; bezeroek kutxan langile bati bere eskaria egin ondoren, honek bere mahaira eramango dio. Horretaz gain, web orritik zerealak eskatuko diguten bezeroekin ere harremana zuzena izango da etxera eramango baitiegu eskaria beraiek lasai jan dezaten. Zerbitzariak adeitsuak izango dira eta bezeroak beti errespetuz tratatuko dituzte.